BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2337

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 8koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Iratzar Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertu da «Iratzar Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea, honako aurrekari hauek kontutan hartuta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2014ko otsailaren 27an, Herri Administrazio eta Justizia Sailean eskari bat sartu zen, «Iratzar Fundazioa» delakoaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. «Sortu» alderdi politikoak sortu zuen fundazio hori. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Fundazioen Erregistroak, 2014ko martxoaren 28ko idazkiaren bidez, dokumentazioan ikusitako akatsak zuzentzeko eskatu zien interesdunei, eta espedientean ageri den dokumentazioa sartu zen.

Hirugarrena.– 2014ko martxoaren 28an Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen.

Laugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«– Sorturen oinarri ideologikoak ezagutaraztea eta zabaltzea: independentzia, euskalduntze osoa, sozialismoa, justizian eta askatasunean oinarritutako bakea, feminismoa, herrien arteko elkartasun internazionalista eta antiinperialista eta demokrazia parte-hartzailea.

– Euskal herriaren burujabetza, aurrerapen soziala, demokrazia sakona eta mundu askeago, justuago eta solidarioago lortzeko asmoz euskal gizartearen baitan lan egiten duten pertsona eta erakundeen pentsaera politikoa zabaltzea.

– Euskal herriko lurralde eta herrien arteko harremanak garatzea, euskal herriko osoko pertsonen arteko elkar ezagutza sustatzeko, bertako pluraltasunarekiko errespetua bultzatuz.

– Ezker abertzalearentzat gogoetarako, ideiak aztertzeko eta ekarpen ideologiko berriak jasotzeko gunea izatea. Halaber, aldaketa sozialeko prozesuak, goraka ari diren kontraesanak nahiz gatazkak eta hortik eratortzen diren ekintza ahalmenak aztertzeko gunea izatea.

– Ekinbide kolektiboaren arloan garatzen ari diren proposamen eta forma berrien eztabaida eta ikaskuntza sustatzea, gizarte inklusiboa, parekidea, iraunkorra eta parte- hartzailea lortzeko asmoz.

– Euskal Herrian nahiz munduko beste herrialdeetan herrien burujabetza aldezten duten erakunde sozial eta politikoekiko eta beste talde eta alderdi politiko batzuetako pertsonekiko harremanak sustatzea.

– Ezkerreko sektoreetako eta herrien askapen mugimenduetako politikarien, pentsalarien eta estrategen arteko sareak eta aliantzak indartzea eta bultzatzea, guztiek partekatutako balore eta ideien inguruko agenda komun bat identifikatuz eta sustatuz.

– Oroimen historiko kolektiboa berreskuratzeko tresna izatea, historiaren ezaguera artikulatzeko eta, dinamismotik eta era etengabean, iragana etorkizuneko erronkekin uztartzeko.»

Bosgarrena.– Estatutuen 1.2 eta 3 artikuluan jasotakoaren arabera, fundazioaren egoitza Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) dago (Zuatzuko enpresa parkea, Ulia eraikina, 1. Bulegoa), eta, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere jarduerak.

Seigarrena.– Hasierako dotazioa 30.000 eurokoa da. Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Zazpigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, haiek izango dira:

Presidentea: Asier Arraiz Barbadillo jauna (2018-02-25 arte).

Presidenteordea: Tomasa Alejandro Gordaliza andrea (2018-02-25 arte).

Idazkaria: María Teresa Ubiria Beaumont andrea (2018-02-25 arte).

Bokala: María Jesús Fullaondo de la Cruz andrea (2018-02-25 arte).

Bokala: Iñaki Olalde Arana jauna (2018-02-25. arte).

Bokala: Maite Fernández de Labastida Amurrio andrea (2018-02-25 arte).

Bokala: Ignacio María O´Shea Artiñano jauna (2018-02-25 arte).

Bokala: Karmelo Landa Mendibe jauna (2018-02-25 arte).

Bokala: María Victoria Ugarteburu Markuerkiaga andrea (2018-02-25 arte).

Bokala: Rufino Echeverria Arbelaiz jauna (2018-02-25 arte).

Bokala: José Ángel Aguirre Aguirre jauna (2018-02-25 arte).

Bokala: Iñigo Iruin Sanz jauna (2018-02-25.arte).

Bokala: Juan Cruz Aldasoro Jauregui jauna (2018-02-25 arte).

Bokala: Bakartxo Ruiz Jaso andrea (2018-02-25 arte).

Bokala: Amaia Izko Aramendia andrea (2018-02-25 arte).

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazioko eta Justiziako sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da Fundazioaren eraketa.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, egun honetan eta F-369 erregistro-zenbakiarekin, Donostiako (Gipuzkoa) «Iratzar Fundazioa» erakundearen eraketa, eta bai Patronatuaren hasierako osaera ere (patronatu horren kideak zortzigarren aurrekarian agertzen dira), 2014ko otsailaren 25ean, Guadalupe María-Inmaculada Adanez García notarioaren aurrean emandako eskritura publikoan (250 protokolo-zenbakia) xedatu bezala (eskritura hori zuzendu egin zen 2014ko maiatzaren 2an notario beraren aurrean emandako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 585).

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 8a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.